Otsalla-Febrero
15
Egubena - Jueves
Bilbao, 1934

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 Irko. Iru Hel
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzerrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.612 zenbakija

Egunekua

Aratuztiak

Ludijan gauza gustijak dauke euren ama ya-ta, aratuztiak be alantxe ixan dabe.

Baña aratuzte-egunetan soñtu ziran matxiñada-nastiak, eta abarek be.

Ondiño aldi asko eztala, soñak kikilduta sutondoratuten gendubezan axe, edur, txingor eta lekaraldo biguztuten ziran ixotzak, igazi dauskubela dirudije, ta arein lekura udabari-antzeko eguraldi argi ta epelak etori yakuzala.

Aurtengo aratuztietan aurpegijak estalduriko kokomaro gitxi ikusi ixan doguz; estaldu bakotan, ostera, ¡gurañe...!

Aurpegijak agirijan ebezala txaidiak-ziar jolastuten ikusten gebazan kokomaruen jolasa, baña, kirol-zalien jolasarena baño, koldaren jolasaren antz geyagokua zala begiantzen yakun, bestaldeko jolaslarijak ureratuten yakezanetan, irakitan dagon urari iges-egiten dautsan katuaren antzian, uri -zañen idixilei iges-egiten eutsen-eta.

Bilbao'n aurten ikusi doguzan aratuzte -jayok etxakuz bape atse ixan.

Baña olako jayetan jolastuteko, eri bakotxak bere jolaskera berezija daula oldoztuta-edo, jolaskera bakan oretzaz eztogu ezer esango, beste aberi batzubetako jolas-ereak apurtxu bat nastau ta agertu baño.

卐 卐 卐

Argentina'n, be, aratuzte-jolasak, aundikiro ospatuten dira.

An, baña, jolasok, suizkilubakaz-eta, barik, oxiñatik-arako ur ozkirijagaz egiten dabez.

Eguraldijak, be, an, gero, aratuztietan, emenguak baño epeltxubaguak ixaten dira, urteko egunik beruenak, aratuzte-egunetakuak ixaten dira-ta.

Eta urezko gudu arek, asikerea, bide -ziar duan gixon edo emakumezkuen bateri, erdi-biluréz soñeratuten yakan ur-zaraztadatik ixaten dau.

Asikerako ur-iztiltxubaren jarai, pitxarkada urak jolaslarijakañe elduten dira.

Eta gudea benetan sendotuten danian, bariz, ontzi azijaguak agertuten dira, galdarak eta abar...

卐 卐 卐

Ur-guda oneik, geyenetan, neska-mutilen artian sortuten diranak ixaten dira.

Eta ¡au gauzearen arigarija! Neskatileak geyen mate daun mutilari jauztiko dautsa bere ontzikada ura.

Eta ontzikada-ur aregaz burutik beraño uyolduta geratu dan mutila, ain auzartsu soñeko edera uyolduten ureratu yakan neskatua mate-miñak erazota egin ixan dabela uartuten daulako, beste ontzikada bategaz neskatua-ganatuten da, ta burutik bera jauztiten dautsan katuaren antzian, uri -zañen idixilei iges-egiten eutsen-eta.

Bilbao'n aurten ikusi doguzan aratuzte -jayok etxakuz bape atse ixan.

Baña olako jayetan jolastuteko, eri bakotxak bere jolaskera berezija daula oldoztuta-edo, jolaskera bakan oretzaz eztogu ezer esango, beste aberi batzubetako jolas-ereak apurtxu bat nastau ta agertu baño.

卐 卐 卐

Argentina'n, be, aratuzte-jolasak, aundikiro ospatuten dira.

An, baña, jolasok, suizkilubakaz-eta, barik, oxiñatik-arako ur ozkirijagaz egiten dabez.

Eguraldijak, be, an, gero, aratuztietan, emenguak baño epeltxubaguak ixaten dira, urteko egunik beruenak, aratuzte-egunetakuak ixaten dira-ta.

Eta urezko gudu arek, asikerea, bide -ziar duan gixon edo emakumezkuen bateri, erdi-biluréz soñeratuten yakan ur-zaraztadatik ixaten dau.

Asikerako ur-iztiltxubaren jarai, pitxarkada urak jolaslarijakañe elduten dira.

Eta gudea benetan sendotuten danian, bariz, ontzi azijaguak agertuten dira, galdarak eta abar...

卐 卐 卐

Ur-guda oneik, geyenetan, neska-mutilen artian sortuten diranak ixaten dira.

Eta ¡au gauzearen arigarija! Neskatileak geyen mate daun mutilari jauztiko dautsa bere ontzikada ura.

Eta ontzikada-ur aregaz burutik beraño uyolduta geratu dan mutila, ain auzartsu soñeko edera uyolduten ureratu yakan neskatua mate-miñak erazota egin ixan dabela uartuten daulako, beste ontzikada bategaz neskatua-ganatuten da, ta burutik bera jauztiten dautsan ontzikada uraz, lexibetuta imiñi.

Mutilak egin ixan dautsan gaiztakeri arek, neskea, ¿asaratuta imiñiko dabela uste dozube?

¡Bai zera! ¡Ezta ufik be...! Ordez, bai, poztu, ¡ta asko poztu be!, mutil areri agertu eutsan matasunak, ordain edera ixan ebala-ta.

Agiri danez, irakurle, Bilbao'n aurten ikusi ixan doguzan aretuzte-jolasak baño, areik, Argentina'n egiten dabezenak, pozkoraguak dira, ta bai alayaguak eta azarijaguak be.

Emen urik, aurten, aurpegijak garbituteko be eztautzube erabili.

Baña bai, ordez, ari-koskor gogorak eta daunbadoska erabiliteko suizkilubak.

Ari-koskorakaz salokijetako leyarak birinduta iminden ebezan; suizkilubetako daunbadakaz, bariz, gixakijak zaurituta.

Uri-zañak-eta, jolas-izkilu bardiñakaz erantzuten ba-eutsen, erantzun, ostera, koldartuta iges-egiten eben, euren jolaskerea mate-jolaskerea barik, gorото-jolaskerea zalako.

卐 卐 卐

Eri bakotxak bere jolaskera berezija dabela esan dogu. Ona emen eri batzubetakuak. Milan'en, Auts-egunetik beste iru egun luzatuten ei-ebezan, aratuzte-jayak.

Aratuzte-jai onein lenengotariko sustraya idorotia eztala gauza ereza esan oi-da. Uskurtza-bidezkua ixan zala, be, bein baño sarijago entzun ixan doguna da, gauf, zoritxarez, nasaikerirako bide zabal biguztuta ikusten ba-doguz be.

Doistaren artian, Aratuzte-egunak, antxiña, "barau-gaba" esan gura ei-eban. Eta gauf, be, doistarak, jai onei, "zoro-jolasak" deituten ei-dautse.

Kistarontzat, aratuzte-ixen onek, baña, aragi-uztia esan gura dau, ta uskurtza-erea ixaten eben aldijetan, ixadijaren udabarija ospatuteko ixaten ei-ziran.

Aspaldiko aldijotan be baña, jai oneik, lixunkerirako baño eztira.

Doistarak, aldika baten, aratuzte-jayetan jolastuteko, txiringadun ixontzija txaideratuten ei - eben, kokomaro jantziriko neska ta mutil baturatuta, kokomaro jantziriko amar edo amabi gixonezko aureti eruatzale zirala, abesti lixunak eta gangarkerijak erakusten baztarik-ziar ibiliteko.

Catalunya'ko Reus'en be, onen antzeko oturea ei-dago.

Oneik, 70 upel inguruko ixontzi aundija, atarakoxe egiñiko burdi aundi baten iminden ei-dabe, ta amar zaldi edo geyago aureti imiñita, eri osuan biraka erabilten ei dabe.

Ixontzi baruban juaten diranak, bariz, bide-ziar dabiltzala idoroten dabezanai, lorak eta gozuak botaten ei-dautsez.

Lora ta gozo zabaltzale oneik itxas-gixonen janzki bereziz janzten ei-dira, ta euren ibiltaldijetan, jolasak-jolas egiten ei -dabez.

Geuri, reustaren otura au, begiko egiten yaku, lora ta gozuak geuri be atsegin ixaten yakuzalako.

URIBITARTE'TAR IBON.

Aiko-Maikoka

卐 卐

Antzerki edo komedizale amoratubak garala euzkuak autortu daigun. Egun oneitan besterik eztogu entzuten. ¿Baña antzerki oreik euzkeraz idatzijak dira? Bai zera, erderaz gixona, erderaz. Abotik ezin jausi yake "vasco" itz au, baña tripetako min galantak daukoguz.

Erderea zabalduteko baño eztira antzerki oreik. Malkuak urteten yakuzan lenguan "Mirentxu" ikusten gengozala. Euzkeraz idatzirik egozan abestu biar ziran talaka, baña beste zatijak erderaz. Basetxietan jayo diran gixonak antzokira ekarten dauskubezanian eta euren abuetan erderea para-para entzuten dogunian, "tragedi" gorijak ikusten gagozala uste dogu. Euzko-erijaren "tragedi" zorigaiztoko au.

卐 卐 卐

Bilbao'ko udalak erabagiren batzuk artuko ei-dauz exaide edo kalietako zarataen ala. ¿Zelan ibiliko garan? Orixe ezta ereza. Bernutzik ezpa'gabiliz. Tranbijak, gurdibilak eta abar ixil-erazteko bide bakara dago. Erekara jaurti gustijak. Baña zarata oreik baño gogaitkarijagua dala uste dogu kale-erdijetan dagozan "guardijen" txilibituba. Kale batez bestera pasau gura dogunian, "guardi" aren txilibituba entzun -arte, tinko egon biar-ixaten gara. Ostikoda bakotxeko emongo neuskije orei emon. Iradurik edo prisarik geyen daukogunian eztabe joten txilibiturik, ezta ordu erdijan be.

卐 卐 卐

"La Constancia,,'ri agiraka egin dautso Muga jaurliak. Orixe, be, eztago ondo ba. Emakume gaste ta lirain bati edozer esan geuskijo, baña atso bati etxako agirakarik eginbiar. Muga jauna ezta oretzaz konturatu. Aurerantzian ezin kalera urten al ixango da egunoroko ori jaurlarijaren begi -aurez pasau-barik.

Atsua dan ezkero, zelan konponduten urteten dan kalera ikusi gura dau Muga jaunak. Biar, ba, auts laregiz aurpegija zurituko dau-ta.

Olazabal jaunak beriala juango ei-da zerura Urtzi edo Jaungua'z itz-egin nai dau, ba, Tximista bategaz buruba kendu dagijola jaurliari eskatuko dautso. Ezkeunke jaurle oren praketan egon gura.

卐 卐 卐

Bizkai'ko lapurak batzartu dira. ¿Lapurak batzartu? ¡Itaunduko dozube, baña egi utsa da gero. Batzar oretan erabagi garantzitsubak artu dabez. Diru gitxi daguan ezkero, aljerik lan-egin biarian, bankuetara juango dira ta banku-zuz-endarijak itaunduko dautse nortzuk dauken diru asko.

Olan jakingo dabe nora juan. Erabagi au ezta makala. Neuk pozik nago egon, banku-zuzendarijak eztautselako neure ixenik emongo. Ezer eztaukogunon ixenak barik, "kuenta korijente" onak daukezenanak emongo dautsez.

¿Eta irakurle, zer diñozu? Nire antzean, zuk, be, etxian gitxi ta bankuan gitxijago, ¿ezta? Tira, ba, bardin gagoz.

卐 卐 卐

Aratuztiak juan yakuz. Euzkel-idazle batzuk "errabi" jantzita ibili ei-dira. ¿Eztala egija ixango? Bai seguru, be. "Ibon" praile: "Luzear" astronomu; "Otxolua" Bertolda'ren praka zarakazr "Arugain" Trueba zanaren kapelaz; "Zeleta" aitaponteko; "Barensoro" Pierrot bategaz.

Beste batzuk, be, erabi jantzita ikusi genduzan, baña ixilik gordeko doguz euren ixenak. "Orixe" eguan ondo benetan.

Datoren urtian txapelketa bat imiñiko dogu. Euzkel-idazliak jantzi dadixala erabi ta ondoen datorenari "Olo lumea" emongo dautsogu. Ixan, be, olerti-antzerti -kirol-txapelketakaz gogatuta gagoz-eta.

Euzkotar umien aldez

"Gezurraren aurka egia aldeztutzen duan ure-izpidun betiko eguzkia liburua da."—Juan de Dios Peza. "La buena escuela".

Nere ikastolatik igaro diran aneika umegaz ikusi detana esango det.

Euzkaldun umiak berezko garotoa dio irakurteari. Nere ikastolan ibili diran ume danak irakurten ikastea izan dute lanik neketzuena.

Euzkeldun umeak irakurten jardun baño nayago dute soroan atxurian ekin.

Eta nik igeri detana bera esan dirate beste irakasle askok.

—Zer egiten zaizu gaitzen euzkeldun umiai erakustia?

—Irakurten erakustea erantzun dirate danak.

Nere ustez, irakurteak atsegin gutxi ematen dion eria da gure eria, euzkel -eria.

Baña gauza bat esan bear det emen lenengo lenengotik: Nik, beti erderaz irakurten erakutsi biar izan dedala. Augai tik, ez dakit ba euzkeraz irakurten erakutsiko ba'giniokete gure umiak izki edo letrari dioten gorotoa gutxitu edo amaituko ba'litzake.

Ni neuk il baño len prueba auxe egin nai nuke ba neure ikastolan. Ez dakit ordea egin al izango detan. Gogaikaria ta aspergaria da izan ere gure umiak irakurten ikasten duten era. Nor berak oldoztu baño ez dagun izkuntza baten idatzitako liburu bat artu ta, ordu erdi bat goizean eta beste ordu erdi bat aratsaldean, geuk geronek egiteko gogorik edo indarik izango al gendukian.

Ni neuk ez beinepein, eta zuek, nere irakurliok, ere naikua lan noski. Ez da ba alatza gure umetxoak ere irakurteko liburuak bizi bizi gorotatzia.

Txiki txikitan, bost urtedun diraralarik etortzen dira ikastolara, baserritik eta mendi tontoretatik, iñoiz ez iñoiz erderazko itzik entzun gabe, eta etortzen diran egunian ipintzen dizkiogu eskuetan erderazko liburuak irakurten ikasi dezaten

Ez da miragaria ez gure umeak liburuak gorotatzia. Miragaria dan gauza ¿bai aldakizute zer dan?

Gure umetxoak irakurten ikastia. Len ere iñoiz esan det baña beriz ere esan biar det. Guri erakutsi ziguten bezela erdaldun umiai erakutziko ba'liokie, iñork ez zuan irakurten ikasi izango.

Zorrilla bera ere izkige edo analfabetua izango zan. Irakuri det iñoiz (eta Eleizalde tar Koldobika zanak idatzita uste detanez) Auñamendi tik beste aldeko euzkaldunak liburuentzat eta irakurtzientzat maitasun eta zaletasun aundikoak dirala. Izan leike. Nik neuk ezagutu dituduan Kanbo, Sara ta Ezpeleta'ko euzkaldunak ere; baseriko semeak izan aren kultura aundidunak ziran.

Eta Eleizalde jaunak esaten zuan ori baldin egia ba'da, zegaitia nere ustez, lenengo malako ikastolan egongo da. Nonbait, Bidasoaz aruntzeko gure anayen umiai, guziai ez bezela erakusiko diote noski irakurten, ez diote irakurteari ta liburuari beren bizi osoan iraungo duan gorotorik eta ikusi-eziñik aurtzaroan artzen. Beste gauza bat ere iñoiz-iñoiz oldoztu izan det. ¿Ez ete darama gure abendak bere odolean edo bere gogoan, irakurtea ta idaztea gauza gutxitzat artzea, edo gauza oyeri biari garantzi gutxi ematea?

Euzkotarok beintzat ez degu gure antxiñako auretiokoak lagata, beste abenda zar batzuek (israel'tarak, india'rak eta abar) bezelako liburu edo idatzirik. Laga aren galdu ba'dira ere ez dakigu baña.

Eta au ez da izan gure abendak idatzita lagatzeko gauza zan jakinduri ta kulturarik ez zualako. Alderantzira. Gure asaba antxiñakuen oitura ta legeak gauf eguneko jakintzuak berak ere txundituta lagatzekoak ziran.

Onelakorik ba'litz nere alde arazoi aundiagoak daude orain diok, edozein irakaslarik dakialako berez gaitza dan, edo umiari berez aldapa gora egiten zayon gauza bat erakutsi ta bere buru bio tzean sartzeko, berarizko erak, eta ondo aukeratutako erak erabili aren naikua lan izaten dala ta, gure ikastoletan euzkaldun umiai irakurten erakusten diogun era ez dala oretarako gauza, urte askotako lanak argi ta garbi erakusten digun bezela.

ARITOKIETA.

OARRA

Gipuzkoa-Idazkaritza onek go gorazten die Gipuzkoa - Buru-Batzarra'ak ilbeltzaren 13'garren an Idiakez'tar Pantzeska'ren auzi-berri-nayaren alde egindako deya; au da, abertzale gustiei beren emaitza gure izkuntzari e gindako bidegabekeria zuzentzeko egin zien eskaera Uri-Buru-Batzar askok arpide ezaguerak bidaldu dizkigula, baita Gipuzkoa-Idazkaritza onek Ossorio y Gallardo legegixonari dirutza oyek aurreratu ere.

Arpide auxe ainbat laisterren bukatu dedin, Euzkadi'ko Uri-Buru-Batzarrai dei-egiten zaye il a onen azkenerako itxi dezaten eta ori egiteaz, dirutza Erki-Bur u-Batzarran bitartez Gipuzkoa-Idazkaritza'ra bidalduko dizkigu te, Prim kalea, 43'garrenera.

GIPUZKOA-IDAZKARITZA.

JAKINGARIA

Ondo antzeztuteko bidea

Gai onetzaz zerbait esatea gure antzezlari-taldeai bearezkoa zaye. Zeatz eta tajuz antzeztea nai ta nayezkoa bai da antzerki-lan bat ona edo txara dan erabakitzeko; polit ala itxusi derizkioten jakiteko. Askotan, antzerki baten garaipen edo ta ondamen, ala "poto egitea" antzezlarien bizkar dago. Gauz auek edozenek dakizki. Ez dakite guziok ordea ondo antzeztea zer dan "Antzerki lan batean idatzia dagona ez da guzia; ez da gaya baizik zuzendariak antzezkizuna gertu dezan." (Tairof). Lenen-lenengo antzez-lagun banaketa egoki egin bear da. Zuzen begiz jo nork ondoen bete dezaken onelako edo alako antzez-notiña... Au egin ezkero dator norberak "papera" irakuri, aztertu, ta ondoren itzez-itz buruz ikastea. Ez da ikasi bear gutxi-gora -bera, oso-osoan baizik. Egileak onelako itz eta esakuntza ipiñi ditunean, zerbaitengatik izango da.

Zuzendariak onetsi dun antzerkiari, ondo irakurita gero, ez bezayo antzezlariak ezer aldatu ta jan. Bere "modu" papera esaten duten antzezlariak beste lagunak nastu ta galduarazten dituzte. Bein "paperak" ikasiak izan diranean alkarekiko sayaketa ta ekitaldiak datoz. Maiz entzun oi da antzezlariai esaten: "papera ba-dakit eta antzezkizun egunez bear bezela egingo det." Au bide txara da. Buruz ezik papera esaten jakin bear da: abots argiz izkindatu, deklamatzen. Bestela, ikustez aspertuak gaudena gertutzen da: alegia, aguroegi ta ixilegi esatea papera ta ikusleak ez entzutea antzezlariak diotena; aopean itzegiten bai -dute. Ori da sayaketa ezak dakarena. Izkintzari, deklamazioari lagundu bear dio, arpegi, esku, beso ta naiz soin guziaren keñu, zimiko ta jokuak. Au ekiñaldi askoren bidez lortzen da; ta utsegite guziak bertan zuzendu bitez.

Beti da onuragari azken-sayaketa jantzi apainketa, tresna ta guzti egitea. Au da "kosmetika" deritzatena: jantziak, soñeko, itxura. Onek eman oi dio antzez-notin bakoitzari bear dun kutsua, zaldunarena ala kalegarbitzalearena; zar edo gazte iduria.

Aiton zararen antzo atera nai ba'da ez da aski ile-orde zuria edo kaska-soila buru gañean eramatea; garondoa ere zararena bedi, ta orobat arpegiaren zimurak, ibilera ta abar.

Antziñan antzezlariak mozoroz estalita atera oi ziran. Gauf musu guztia margotuta arkatz gori ta beltzez, arpegi bat maskaltzen da nai aña.

Azkenik argi-joku, dekorazio, ta antzeztoki apainketan datza garaipenaren erdia. Ertilari ori batek, naiz ez izan margolari bikaña, gauza gutxikin, paper utsez, ametsezko antzeztoki liluragariak gertu litzazke.

Onu oyek jaraituaz txalo ugariak jasoko dituzte antzezlariak eta jendetza utziko dute beti pozik.

MATXINGORI.

ZESTONA

EZKON-DEYAK. — Arozena'tar Iñaki, zestuara, Zarautz'en Sendagile dana, Donostiar S. Berondo Irakasleakin deitu zan, Iñauteri egunian.

BATAYOA. — Azpilaga'tar Bingen'en emastiak, aur bat izan du. ¡Zorionak!

IKASTETXIAN. — Joseba Deun Ikasliak, jayak antolatzen asi dira gogtsu. Antzerkiak aukeratu dituzte, "Aldiz-Aldi" bata ta "Guda-Mutilak" bestia. Azkeneko au eresi duna.

GURUTZ-BIDEA.—Asteazkenetik, asiera ematen zayo gure Eleizan, egunedo goizeko seiretan. Ondoren izango dan. Mesa -bitartian egunero itzaldiak ere zuzenduko dizkigute... Aureko urtian ain ederki erantzun genduanok, aurten ere erikoak bezela, baseritark ere, ez aldegu utz-egingo elizkizun ederen ortan.

ERIOTZA—.Azpilaga'tar Jone, alarguna, juan dan astian, il zan. Otoitz irakurle bere alde

Sagastieta.

Errijetatik

KORTEZUBI

EUZKEL-IXENA. Eri onetako "Iturieta bekua" deritxon basetxeko Izagire'tar Andoni ta Etxebarieta'tar Serape senar -emaste abertzale zintzuak, alabatxu bari bat ludiratu dabe, ta Miren euzkel-ixen begikuagaz ugutzau be.

Jayoparitxu onen atabitxi-amabitxijak, Etxebarieta'tar Jon eta Aurtenetxea'tar Genare jeltzale zinduak ixan ziran.

Zorijonak gustijoi, guraso abertzalien egin biaraz betetia orixe da-ta.

GUDARI.—Uriarte tar Benin mutil begikua, España otseinduten gudari eruan dabe. Auxe bai dala benetako tamala, ta bai lotsagarikerija be; ama-ordiaren otsein euzkotarak españaren gudari juan biara..

Ondo ibili, Uriarte, ta atzeriratu zarianian baño abertzaliagotuta atzera Euzkadi'ratu.

GASTE-BELU'RI.—Pozik irakurl neban zeure idazkija. Eta benetan poztu nendubana, atzeri alde oretan osasunaz zabixala jakitia ixan zan.

Ia, ba, Gaste-Belu, osasunagaz bixi, ta aberijagaz ez aiztu. Eta ainbat ariñen Euzkadi'ratuteko bide bat egixu, orti mateko zatubezan baño emen obeto matatuko zatuguz-eta.

Zeuk, baña, osasunaz bakarik gixona eztala bixi, esaten daustazu, gogo-alaya be biarekua dala-ta.

Ederto Gaste-Belu. Orixe da burubagaz oldoztutia, ta bijotzagaz zeure aberija dan Euzkadi matatutia.

Zeure euzko-gogo ori alatu dagixuntzat, arin-arin Euzkadi'ratu, ba, emengo mendi -bitartietako axe garbijak, ortiko gaztela -usain gustijetatik beriala garbituko zatubez-eta.

Udabarija be lasterr dogu, ta udabarijagaz batera, euzko-baratzetako loratxubak be. Eta lora oneik ixango dira euzko-neskatila lirañak apainduko dabezanak, eta euzko-ikurin begikua Batzoki'ko txeigoratu, ta Euzkadi osua udabarituko dabenak be.

GORA-BETI.

LEKEITIO'TIK

ARAINTZA.—Egunokaz papardo apura dakare. Baita sardiñia be agertu da. Bekare ugari.

EZKONTZAK.—Igazi zan astelez eskondu ziran bertoko ertxadonean Zamora Amias'tar Josune, lekeitiara eta Perez Iriguren'dar Laurentzi, arabara. Zorijonak.

Baita be lasterr ezkontzeko dira—biarba, idazki au argitaldu baño len—Garamendi 'tar Jon, itxasgixona, eta Eguróla'tar Sorne. Urte on askotarako bediz.

ANTZERTI. — Egunokaz diardue antzerki-ikasten Euzko-Batzokija'ko antzezlarijak.

"Gora-Buru" antzokijan ufengo ixango dan antzerti-jaya bertoko Euzko-Langilien alde ixango da. Ori dala-ta, iñoizko lagun geyen antzokijan ikustekotan gagoz.

IÑAUSKETA. — Enparantza-inguruko zugatzak iñausten diardue langile batzuk.

SASI-KOIPETSU.—Juan dan egubenian askok ospatu eben eguben-zuri. Guk, emen, "sasi-koipatsu" deritxogu. Sasijak, egun oretan, ez eben koipe laregirik ixango, baña batzuk ederto koipeztu zirian.

BAREGARIKERIJA. — Lengo baten ixenpuru oregaz EUZKADI'n agertu zan idazlana zala-ta, batzu-batzuk bare ederak egin ebezan.

"EUZKADI" PELIKULEA.—Uri onetan be ikusi genduban pelikula ori. Ikusliei atsegin ixan yaken.

AGATE DEUNA.—Aurten be, bestetan lez, Euzko-Batzoki'ko eta Euzko-Langiliak ibili ziran abestuten.

Beste batzuk bariz, erbestekuak, ba-erebilen zaparadarik... inpernuko auspo ta gusti.

ENDAITZ.

MUXIKA

EUZKEL-IXENA.—Undabarena'tar Jon eta Zabala'tar Pilipe senar-emastiak mutil morosko eder bategaz gefu dabe euren sendija. Eta Ugatzaukeran "Kepa" euzkel -ixen begikua ezari deutsie. Ata-amabitxiiak, ixanik, Undabarenatar Kepa ta Zabala'tar Kepe, jayoparijaren osaba-ixekuak. Zorijonak gustijoi.

GEXORIK.—Alan aurkitzen da Bilbao 'tar Kepe Inzunza'tar Joseba Gotzon Muxika'ko abertzalerik zarenaren emastia, ainbat lasteren osatutia opa dautsogu.

NASKALDIJA. — Emen ikusi doguz Zaldunbide'tar Euletere, Getxo'tik etorita, Galartza'tar Josebe, Bilbo'tik eta bardin Bilbao'tar Jon be. Ondo etorija, gustijoi.

EGURALDI OTZA.—Izparak idazten nagon bitartian, otzak dardaganian narabil. Esaera zara da: "kandelerijoz edure, juan da neguen bilduře". Baña aurten esaera orek uts-egin dabela esan lei.

ARTEZKARI JAUNARI.—Ene artezkari mate orek, ¿zer egin daustazu, aurte onetan neugaz erabili dotan ixen die beste bateri saltzeko? Ezeidazu ba, aren, olakorik, Jaungoikua'ren legia kotxari beria emotia da-ta. Igaro dau runbateko Euzkel-Atalian agertzen Munitibar'ko izpara "Atxondo" ixendiegaz ixenpetuten ebela. Bat baño gesan dost, Muxika'ri itxi, ta Munitibar idazten asi nazela; eta au ixan ezin gauza bat da. Aren ezkatzen dotset le bari oneri, berentzat aukeratu beste ixen-orde bat, neuria, neuretzat dodalako.

ATXONDO.

Uara.—"Atxondo" ixen-orde au, zuk zuk atatzen dozun Munitibar'ko idazlerijak baño lenago, Zaldibar'ko euzkel le yayo batek erabiliten eban.

Beraz bakotxari beria emon biar ba ko, arixeri emon biar yako. ¿Ba-gara?

Euzkel-ixena.—Izpar au, aurtemin taldu zan orko idazki baten be argi zan. Al dala, izpar bardingiak bide alegindu biar zarie.

Agate abestijak Logroño'n

¿Nork uste izan biar zuan Logroño Agate Deunaren euzkerazko abestijak etzun biar zirala?

Aurten etzun dira, ba; ta atsegiñez etzun ere euzkotaren etxe-aurietan, txikirik agirijenetan eta uriko agintarijen -ataritan.

Larunbata aratsaldeko seiretan irten Euzko Gastedija'ko 40'ko abestalde nagarija euren lendakari txalogarija dan Villafruela'tar Bitor eta Hogar Vasco'ko lendakari Muxika jauna buru dirala, eta Logroño'ko eguneroko bi izparingijak, "Diario de la Rioja,,'k eta "La Rioja,,'k aundikiro txalotuaz beren lan edera adierazi dutenez gaberdirarte jaraitu zuten, 52 etxeikertzeraño, eta entzulien abegi-onezko txalo otsean egokitasun aundijaz abestuaz:

"Hogar Vasco,,'k ardurea dau,
gure txiruak jasteko;
emoigozube ¡aren! zertxobait
geuk ara eruateko.

Logroño'ko Euzko-Ikastolak, be,
biaran aurkitzen dira;
eskatzen dogu arendako, be,
jarai-dagiyen aurera".

Abesti begiko onetzaz gañera, guziz txalogari abestu zitusten noski, beste abesti aberkoi abek ere: "Ene Aberi", "Euzkotarak gara", "Zeuretzat bizitza", "¡Kea!" "Ene Ama", "Aldapeko" eta azkenik "Euzko Abendaren Ereserkija". Baña txindi mordozka edera bildu ere, egintza onek aunditasun pozgarijaz adierazten digula emengo euzkotaren artian abesti aberkoi abek entzuteko aurkitzen zan egarri bizija.

Euzko-abestalde eder au, bestelako gogaririk gabe ere, naikua izango zan aren Aberi'tik at aurkitzen diran euzkotaren bijotzak alaitasunez berotzeko, Deba'ko txutulari ospatsubak, Urain aita-semeak tutzten lagun eta txistuaren alaitasunak berentzat irabazi zituan, Logroño'ko euzkotaren begirapenak ezezik, erriojatarren ere; eta pozik egon ditezke euzkotasun berodun egintza ospagari au eraltzeko beren alegiña gogotsu jari duten eraltasun goragarijak.

Bakar-abeslari (solistas) egazkin-burozagi (capitán de aviación) Nabarro, eta Uriarte, Beriatua eta Ariaga gaste alaiak izan ziran. Baña Logroño'n egin zutenez bakarik etziran geldittu gure abeslari trebeak. Bigaramonian, igande aratsaldeko Oyon'era jun ziran danak; eta aberitzaletasun-azija ain ederki ernetzen ari dan arabar-erituxo artan berittu zuten aureko egunoroko egintza aberkoya, ikertuaz, berta aberitzale gustijen etxiak, eta bereziki, gure jaupari agurgarija dan Ortuzar'tar Imanol'en bizitetxe euzkelduna.

Beron egintza guziz goralgarijaren ondoñez Logroño'n eta Oyon'en irabazijak dituzten txalo bero-beroai atsegiñez geintzen diyegu gurea ere, debaren txistu-alai otsez, ez gure abeslari jatoren abotsik entzuteko zoririk izan ezgendun-aren, uritik at (kanpuan) baserijan bizi geralako; eta gogotsu zoriyontzen ditugu euzkotaren aberi -oyak erbesteraño entsungari izateko zorija izan duten aberitzale goragarri-taldegarijak.

Aberi ta erbeste
Euzkadi'ren alde;
¡saya gaitean danok!
bera azkatu arte.

ZELETA.

Jesús Ostolaza
BERGARA
卐
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

EUZKO
JEL - ASTEROKO IZPARINGIJA
Larunbatetan agiri ixaten da
Euzkelduna: Abertzalia ba'zara, erosi ta irakurri biar dozu asteroko au.